

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko maiatzaren 25a

Egunkaria


Gehigarri honetan



Lizarra • Larrain dantza bertakoa dela aldarrikatuko dute igandean

Juan Jose Armendariz • «Boscos sarian, futbolak baino gehiago, giroak erakartzen du jendea»

Izotz barnean



• LIZARRAKO ESPELEOLOGIA TALDEA

Lizarrako Espeleologia Taldeko bost kide, Adolfo Eraso espeleologo beteranoarekin batera, Islandiara joan ziren iragan udan, Vatnajökull glaziarra aztertzeko. Zehazki, glaziarrak kanpoko tenperatura dela-eta galtzen duen ur kantitatea kalkulatu behar zuten. Eta, horretarako, urak egin zuloetatik glaziarraren barnera sartu behar izan zuten, topografiatu, ur lasterren norabideak aztertu... Azterketak Lurraren klima aldaketaren ikerketan laguntzeko balio zuen. Orain ikus-entzuneko emanaldia osatu dute Islandian eginiko lana kontatzeko.



Larrain dantzak jatorria Lizarran duela aldarrikatuko duten igandean.

● KRISTINA BERASAIN

Lizarra • Larrain dantzaren eguna

Euskal Herri osoan zabaldu den dantzaren jatorria aldarrikatu nahi dute bere sorlekuan

nekoz egin zen dantza jaialdia berreskuratu nahi izan dugu», erran du Xabier Okariz dantzariak. «Joan den urtean taldearen 20. urteurrena ospatu genuen, dantza ikuskizun batekin, eta, ekitaldiak izan zuen harrera ikusirik, urtero egitea erabaki dugu. Larrain Dantzaren Eguna izena ipini diogu jaialdiari, dantza Lizarran sortu zela aldarrikatzeko». Gauzak horrela, igandean eguerdiko 13:00etan puntu-puntu ikusgai eta entzungai izanen da Larrain dantza.

Ibai Ega taldeak antolatu duen egun honek hainbat tirabira sortu ditu hirian dauden bi dantza taldeen artean. Larraiza taldeak prentsa ohar baten bitartez adierazi duenez, bere kideek ez dute egun horretarako prestatu diren ekintzetan parte hartuko, gonbidatuak bazeuden ere. Erabaki hori hartzeko azaldu duten arrazoi nagusia ospakizunaren prestateta lanetan parte hartzeko aukera ez izatea da.

«Euskal Herriko dantza»

Ika-mikak alde batera utzirik, antolatzaileen erranetan, aipagarria da dantza Euskal He-

rri osoan zehar zabaldu izana. Hala ere, haien ustetan, bere benetako izaera galtzen ari da: «Dantza ospetsua da, dotorea, eta egun narriadura nabarmena jasaten ari dela uste dugu».

Larrain dantza zein urtetan sortu zen erratea zaila bada ere, aspaldi-aspaldikoa dela gauza jakina da, Erdi Arokoa agian. Idatzizko aurreneko datua 1903. urtekoa da. Bertan Alfonso XIII.aren bisita batean dantzatu zela erraten da. 1913. urtetik aitzina eten egin zen dantzatzeko ohitura. Lizarrako gaitari zaharrek, ordea, buruan gorde zituzten dantzaren soinu guztiak eta urteekin berreskuratu egin zen. 1978. urtean larrain dantzak indar eta bultzada berezia jaso zuen. Urte hartan «Euskal Herriko dantza nazionala» izendatu zuten Iruñean egin zen Euskal Dantzarien Biltzarrean. Geroztik, Euskal Herriko herri orotan dantzatzen da, eta Lizarran, oinekin ez ezik, bihotzarekin ere dantzatzen da.

→ Kristina Berasain

Iruñea • Sanduzelaiko maiak

UDABERRIARI, UGALDEARI ETA auzoko inguru naturalari agur egiteko, Sanduzelaiko haurrek Maien besta ospatuko dute gaur. Maien besta hori egun Baztanen ospatzen da soilik, non duela zenbait urte berreskuratu zen, baina lehen oso errotua zegoen leku anitzetan. Sanduzelaiko Umetxea elkarteak 1993an ekarri zuen besta Iruñera eta auzoaren ezaugarrietara moldatu zuen.

Maiatzaren azken ortzira-labaino hamar egun lehenago, auzoko hamar urtez beheitiko neskatilak askaltzeko elkartzen dira. Opila jaten dute eta bertan baba aurkitzen duena izanen da Erregina. Bertze guziak Saratsak izanen dira.

Erregina, lili koroa buruan eta adar berdez zein liliz apainduriko tronuan, arratsaldeko seieta hasiko du ibilaldia, Saratsekin batera. Sanduzelai, Juaristi eta Labaien karriketatik, haur parkeraino ailegatuko dira. Hantxe Saratsek hainbat olerki kantatuko dizkio- te Erreginari, dantza eginen dute eta bertaraturiko haurren artean fruta banatuko dute. Gero, erromerian, iparraldeko ibaiertzetik Miluze zubiraino joanen dira, ugaldian lili petaloak botatzeko. Azken olerkiak kantatu eta dantzatu eta gero bukatuko da Maien besta.

→ Daniel Urrutia

Gaur ospatzen den Puyko ama birjinaren egunaren egitarauaren barruan, igandean eginen den Larrain Dantzaren Eguna da aipagarriena. Egun horretan ehunka dantzari aterako dira karrikara dantza famatua Lizarrakoa dela aldarrikatzeko.

EUSKAL HERRIKO EDOZEIN HERRITAKO jaietan arrunt bilakatu da larrain dantza dantzatzea. Dantzari trebatua ez izan arren, edonork dakizki, guti gorabehera, dantza ezagun honen pausoak. Ahatik, inor gutik jakinen du dantza luze horren izena —eta, are gutxiago, jatorria— Lizarran dagoela.

Larrain dantza Lizarrako larrainetan dantzatu ohi zen, uzta

bildu eta gero. Larraina garia jotzeko tokia zen. Berez, dantza borobila eta mistoa da, gizon eta emakumeek dantzatzen baitute, eta zazpi zati ditu: kalejira, katea, fandangoa, balsa, jota zaharra, bolearak eta amaierako kalejira.

Larrain dantzaren jatorria aldarrikatzeko, Lizarrako Ibai Ega dantza taldeak aspaldian hirian egiten zen jaialdia berreskuratu nahi izan du. «1989. urtean azke-

Erronkari • Uskara eta historia

BIHAR, BOSGARRENGOZ, Uskararen eguna ospatuko dute Erronkari ibarrean. Kebenko taldeak, AEK-k eta Euskara Zerbitzuak antolatu duten eguna Erronkari herrian izanen da aurten, eta aukeraturiko gaia «Nafarroako historia» da.

Erronkari eta Zaraitzuko euskara teknikari Jone Usozek erran duenez, lehenbiziko Uskararen Eguna Uztarrozen egin zuten, eta bigarrena, Bidankozen. Orduan erabaki zuten urtero gai baten inguruan antolatzea egun hori. Horrela,

bada, bigarren horretan omenaldia egin zieten erronkarieraz mintzo ziren azken euskaldunen senideei. Hirugarren eguna Izaban izan zen eta espartingileak omendu zituzten. Iazko Uskararen Eguna Burgin ospatu

zuten eta sorginkeria izan zen gai nagusia. Aurten, erran bezala, Nafarroako historiak hartuko du egunaren protagonismoa.

«Besta bakarrean kultura eta euskararen aldeko aldarrikapena batzen ditugu», erran du

Usozek. «Batetik, euskararekiko sentsibilizazioa bultzatu nahi dugu, eta, bestetik, Erronkariko zazpi herrietako jendea besta batean bildu».

Biharko besta Oinarriak plataformaren kultur zikloaren barruan dago. Nafarroako historia du hizpide biharko egunak, «euskara historiaren parte garrantzitsua dela azpimarratzeko», baina, zehazki, Nafarroa konkistatu zuten garaikoa izanen da hizpide. Biharko bestan lau informazio txoko zabalduko dituzte Erronkariko karriketan.

Batean, Erronkariko etxearen inguruan hitz eginen dute: zernolako harriak zituen, zenbat etxe zeuden, nola egiten ziren, ordenantzak... Beste txoko bateko gaia transhumantzia izanen da. Hirugarren txokoan, ibarraren inguruko datuak emanen dituzte, turistikoak batez ere. Eta laugarrenaren gaia demografia izanen da.

Ondoan zehazturiko egitarauaz landara, erran beharra dago Naturaren Interpretazio Zentroan bihar orduoro egonen direla euskarazko bisitaldiak, 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era. Eta, gainera, «Euskara eta kultura Nafarroan» izenburuko erakusketa Izabako museoa dago ikusgai.

→ Asier Azpilikueta

Egitaraua

10:00: Dianak Bidankozeko gaitariekin.
11:00: Informazio txokoen eta Orreagaren erakusketaren irekitzea.
11:30: Mahai ingurua Junta Etxean Nafarroako historiaren gainean: Mikel Sorrauren, Alvaro Adot eta Tomas Urzainki.
13:30: Erronkariko haurren eta Julian Gaiarre abesbatzaren kontzertua, Gazteluko ermitan.

14:00: Kebenko eta AEKren Euskalgunearen inaugurazioa.
15:00: Herri bazkaria kiroldegian. Bazkalostean, akordeoi jolea.
17:00: Haurrentzako jolasak frontoian, Kulkiren eskutik.
20:00 eta 00:30: Dantzaldia frontoian, Joselu Anaiekin.

Iruñea •

Autorik gabeko jaia

Alde Zaharreko taldeek 37 ekitaldi antolatu dituzte, auzoaren eguna ospatzeko

Bihar, goizeko hamarretan hasita, alde Zaharreko karrika gehienetan dozenaka ekitaldi izanen dira, Iruñeko auzorik zaharrena bizitoki bizia dela aldarrikatzeko. Biharkoa autorik gabeko jai eguna izatea espero dute antolatzaileek.



Gazteluko plaza eta Alde Zaharreko gainontzeko karrika eta enparantzak autorik gabe nahi dituzte bihar. • MIKEL SAIZ

BIHAR EGUN BEREZIA IZANEN da Alde Zaharrean. Auzoko hogeitasei talde (auzokideak, dendariak, ostalariak, parrokiak, kultur elkarteak, gazteak...) elkartu egin dira, Alde Zaharrean Egunerako kultura, kirol eta aisialdirako ia berrogei ekitaldi antolatzeko.

Bihar da hitzordua, eta bihar Alde Zaharrean autorik ez egotea nahi dute auzokideek. Egun osoko jaira bilduko direnak oinez, bizikletaz edo garraio publikoa erabiliz egin dezatela eskatu dute Alde Zaharrekoek. Era berean, Alde Zaharrean bizi direnak autoak bertatik ateratzeko eskatu dute. Biztanleentzako txartela dutenek dohainik aparkatu ahal izanen dute horretarako egokitu dituzten Zabalguneko hainbat karriketan.

Bizitoki bizia

Antolaketa talde bateko kide Txutxin Almingolek erran duenez, «egun batez auzo ezberdina ikusarazi nahi dugu, gogoeta egiteko, ikusteko autoa gehiegi erabiltzen ez badugu Alde

Zaharra bizitzeko, bisitatzeko eta bertan erosketak egiteko toki ezin hobea dela». Almingolen iritziz, Alde Zaharreko karrikak ez daude autoa erabiltzeko eginak. «Alde Zaharra ez zuten eraiki autoetarako», erran du. «Bestelako bizimodu baterako egina dago, bizimodu atsegina-goa, lasaiagoa. Garaiak aldatu egin dira, bai, baina horrek ez du erran nahi autoarekin auzoa hondatu behar dugunik». Hala, bada, bihar batere autorik gabe ikusi nahi dute Alde Zaharra.

Biharko prestatu egitaraua zabalegia da orriotan jasotzeko. Bakan batzuk aipatzearen: Santa Ana plazan kalderete lehiaketa izanen da, Kontuen Ganberan gaztelaniazko eta euskarazko bisita gidatuak antolatu dituzte, Errekoletak plazan herri kirolak egonen dira, Udaletxe plazan auzoan barrena modu osasungarrian ibiltzeko bizikletak utziko dituzte, Santiago plazan folk musika egonen da, San Nikolas plazan haurrentzako puzgarriak paratuko dituzte, Gazteluko plazan herri lasterketa eginen dute, eta

Mercaderes karrikan herri tonbola egonen da.

Orotara, 37 ekitaldi. Horiekin guzietan, Txutxin Almingolen hitzetan, «erakutsi nahi dugu zer-nolako ahalmena

duen auzo honek ongi zainduz gero eta bizilagunek eta komertzianteez erabiltzeko jarritz gero».

→ Asier Azpilikueta

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Sukaldeko olio birziklatzen

Bortzirietan etxeko olio bildu eta birziklatu egiten dutela dio **Ttipi-ttapa** astekarriak bere azken zenbakian. Rakel Goñi kazetariak sinatutako artikuluan azaltzen du argitalpen horrek bio-erregaiak eta garbikariak egiteko balioko duela olioak: «Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak birziklatze kanpaina bat jarriko du martxan ekainean. Sukaldean erabiltako olio birziklatzea da helburua, sortzen duen kutsadura galarazteko eta errekarra eta itsasora iritsi ez dadin. Orain

arte etxeko olio zakarretara edo hodiariatik botatzea zen irteera bakarra. Hemen aitzin bortziritarrek zerbitzu berri hau izanen dute bi hilabetez behin».

«Bilketa eguna hilabete bakoitzeko lehen ortzeguna izanen da, besta balitz bigarrena. Hilabete paretan Beran eta Etxalarren bilduko dute olio eta gainontzekoetan Arantza, Igantzi eta Lesakan. Lortutako olioarekin batez ere bio-erregaiak sortuko dira. Bionor proiektuaren barnean, Ecogras-ek biodieselak produzi-

tuko du. Ia-ia ez du kutsatzen. Ehuneko 98an biodegradagarria da eta, nahi den kantitatean, ohiko dieselarekin nahas daiteke. Biodieselaren prezioa orain artekoa bezalakoa izanen da, eta hasierako prozesu honetan garraiobide publikoen enpresei eskainiko zaie Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan».

Ekainetik aurrera, beraz, birziklatzeko beste aukera bat izanen dute Bortzirietako herritarrek, Mankomunitatearen ekimenari esker.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Auto-ilarak

NUPEko azken sotoan aurkitu dut gizona. Irakasle ezezagun honek «Auto-ilarak» sailean lan egiten du eta fisikoki azal txuri txurikoa da eta erdi itxua. Nik aste honetako Auto-iladez galdetu diot ea autobus gidarien greba dela-eta handiak izan diren-edo. Berak, poz-pozik, eta eskuan diagrama esanguratsuak astinduz baietz esan dit: «Bai horixe! Begira bestela diagrama hau! Eta beste hau! Ahhh! Begira zein portzentai eder-rra! Sekulakoa! Jendeak, badakizu, Auto-ilarak ez ditu baloratzen, ez, ez, beraiantzat oztopo bat besterik ez dira. Baina guk ondorio izugarri interesanteak ateratzen ahal ditugu! Eta ez trafikoaz bakarrik, ez, ez, gizasemearen arimaz ari naiz! Errealitatearen erakitzeaz ari naiz!».

Errealitatearen erakitze horren adibide bat eskatu diot. «Ea bada, adibidez: Orain dela urte batzuk, autobien aurkako manifa bat deitua zegoen Donostian. Oroitzen zara? Manifa nazionala! Eta, hara non, sekulako auto-ilara sortu zen Iruñetik Donostiarako errepidean!, manifestariak sortua! Ja,ja,ja,ja! Diagramek aski ongi irudikatzen zuten bi ondorio nagusi atera genituen: Batetik ekologistak kotxe erabiltzaile sutsuak direla! Eta bestetik autobia baten beharra zutela non eta Donostia-Iruñea errepidean! Jajajaja! Harrigarria! Ez da hala?! Seguro nago kotxeen barruan zihoaztenak ez zirela bi ondorio hauetaz ohartu ere. Kontua da jendeak horrelako ilarekin topo egiten duela: Topo! Sekulan ez duzu 'auto-ilara bat osatzen egon naiz' edo 'nire kotxeak auto-ilara bat eragin du' entzungo. Jendeak topo egiten du haiekin, euriarekin edo mendi baten bista eder batekin topo egiten den antzera. Auto-ilarak hodeiak bezala dira jendearentzat, berez sortu eta berez desagertzen direnak. Are gehiago!: Batzuek kotxeek baino munipek sortzen dituztela diote! Jajajaja! mundiala ezta?».

Orain ulertzen dut zer dela-eta sotoan lan egin beharra. Heterodoxo gixajo honi ez diote sekulan Asturiasko Printzearen dominarik emango. ●

Islandiako izotza esploratzen



Lizarrako Espeleologia Taldeak iazko Islandiako espedizio glaziologikoa biltzen duen proiektzioa egin du

Iragan udan Lizarrako sei espeleologo, Adolfo Eraso buru zutela, Islandian izan ziren, Vatnajökull glaziarraren nondik norakoak aztertzeke. Lurraren aldaketa klimatikoaren estudioa laguntzeko balio zuen azterketak. Orain ikus-entzunezko proiektzioa osatu dute, Islandiako bizipenak kontatzeko.

Lizarrako taldearen eraman handia

LIZARRAKO ESPELEOLOGIA TALDEA 1953AN SORTU ZEN, Lizarrako Mendi Taldean —aurten mende erdia betetzen du— espeleologia saila egin zutenean. Saila urte askoz Principe de Viana erakundearen barnean egon zen. Gerora, bi talde ateratu ziren hortik, Iruñeko Satorrak taldea eta Lizarrakoa.

Lizarrako taldea Euskal Espeleologoen Batasunaren barnean dago, eta noiz edo noiz Euskal Herriko espeleologia jardunaldiak antolatzea egokitu zaio. 1989an Marokora joan zen taldea; Patxi Azpilikueta nabarmendu duenez, hura Euskal Herritik kan-

pora ateratzen zen lehen espeleologia espedizioa izan zen.

Aurten 22 lagun federatu dituzte. Zorionez, erdiak baino gehiago gazteak dira. «Espeleologia taldea ez da kirol taldea soilik», erran du Azpilikueta. «Bere alderdi zientifikoa ere badu, eta ez nolana horkoa. Adibidez, haitzuloetan egiten ditugun azterketa askok ur baliabideekin dute zerikusia». Lizarrako taldeak hainbat lan egiten ditu Nafarroako Gobernuarendako eta beste zenbait erakunderendako. Hortik ateratzen dute materiala erosteko dirua. Baita bazki-

deen kuotatik eta Lizarrako Udalak ematen duen diru laguntza tiki batetik ere.

Lizarrako taldeak urtero antolatzen du espeleologian hasteko ikastaroa. Aurtengoa ekainaren 2, 3, 9 eta 10 egunetan izanen da. Izena emateko epea gaur akitzen da, baina horretan malguak izaten ahal dira. Ikastaroan izena eman nahi duenak jo dezala lehenbailehen Lizarrako Udalen Gazte Bulegora edo espeleologia taldearen lokalera (Lizarra frontoia, 948-553157).



IAZKO UZTAILAREN 25EAN LIZARRATIK BI Land Rover ateratu ziren Islandiarako bidean. Barnean, Lizarrako sei espeleologo: Adolfo Eraso, Patxi Areta, Patxi Azpilikueta, Miguel Ceniceros, Carlos Angulo eta Javier Ruiz. Land Roverekin Danimarkaraino ailegatu ziren. Hantxe ferrya hartu eta, Faroe uharteetan bi eguneko egonaldia egin ostean, Islandiara ailegatu ziren.

Islandia Atlantiko ozeanoko uharte bolkanikoa da. Norvegia eta Groenlandia artean dago, Ipar Burutik gertu. 6.000 kilometroko itsasertza du, fiordo ugari, berrehun sumendi baino gehiago eta ehun bat glaziar. Glaziarrek uhartearen zortzirena betetzen dute. Glaziar handienak Vatnajökull izena du eta Nafarroaren tamainakoa da. Glaziarrek hainbat mihien bidez egiten du aitzina eta horietako anitz itsasora ailegatu da. Lizarrakoak Kviarjökull izeneko glaziar mihia aztertzea joan ziren.

Mihi horretan 1996tik dabilta azterketak egiten. Adolfo Eraso, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko irakaslea, egona zen mihi horretan, espeleologo italiarrekin eta brasildarrekin. Iazko neguan, Lizarran zegoela, bertako espeleologia taldekoek galdetu zioten ea joaterik ote zuten. Baiezkoa izan zen erantzuna eta ordutik, uda arte, espedizioa antolatzen ibili ziren. Entrenamendua duan,

Patxi Azpilikueta

«Glaziarrek laboratorionak dira, beste gauzen artean aldaketa klimatikoa ikertzeko»

Pirinioetako izotz jauzietan praktikatzen ibili ziren.

Izotz zuloen azterketa

Islandiara ailegatu bezain pronto, Land Roverrak hartu eta glaziar mihira abiatu zen espedizioa. Kanpamendua glaziarretik kanpo eraikei zuten, eta berehala ekin zioten lanari. Glaziarrek, kanpoko tenperatura dela medio, galtzen duen ur kantitatea ikertu behar zuten. Glaziarretan izotza urtzen denean, ura barnera sartzen da eta zuloak sortzen ditu. Gero, ur hori glaziarren azpitik ateratzen da, ibai moduan.

Bada, Lizarrakoek estudio fisikoa egin behar zuten, glaziarren aldaketan nondik norakoak jakiteko. 96an, 97an eta 99an beste batzuek ikertu zuten eremu bera ikertu zuten Lizarrakoek. Urak izotzean egiten

dituen zuloak bilatu zituzten lehenbizi. Zulo horiek hemengo leizeen antzekoak dira. Kontua da hemengo zuloak milaka urtetan egiten direla eta glaziarretakoak, berriz, aste batetik bestera aldatzen direla. Orotara, 33 zulo aurkitu zituzten, aurreko urtean baino hamaika gehiago.

Glaziarra, laboratorion gisa

Zuloak, GPS bidez ongi kokatu eta mapa egin ostean, banan-banan aztertu zituzten. Zenbaitetara, kranpoiak eta pioletak erabiliz, ibiltzen jaisten ahal ziren. Beste batzuetan, ordea, sokaren laguntzaz jaitzi eta gero eskalatu egin behar zuten. Gehienez, 50 metroko jaitziera egin behar izan zuten. Zuloen barnean iparrorratz, klinometroak eta metroak erreken norabideen datuak hartu, topografiatu, eta ahal bezain beste sartzen ziren; hau da, sakonera handiko ur putzuak aurkitu arte. Ura zero gradutan zegoen ia.

Urtzen zen ur kantitatearekin kalkulatu zuten glaziarrek galduriko izotz masa. Eta datuok aurreko urteetakoekin konparatu zitezuten, glaziarrek aitzina edo gibelera egiten duen ikusteko. Eta hori guziaz Lurraren aldaketa klimatikoa aztertzen duten nazioarteko batzordeetara bidaltzen da. Espedizioa kide Patxi Azpilikueta adierazi duenez, «glaziarrek laboratorionak dira, beste gauzen artean aldaketa klimatikoa ikertzeko». Harturiko datuen arabera, ikusi dute glaziarra geroz eta gehiago urtu dela. 2000. urtean aurrekoan baino %25 izotz gehiago urtu zen.

Bidala, ikus-entzunezkoan

Glaziarra aztertzen ari zirela, Lizarrakoek ez zuten ezustekorik izan, «dena oso ongi estudiaturik» baitzuten. Behin matxura izan zuten Land Rover batean, baina berehala konpundu zuten. Eta hotz handirik ez zuten pasatu, 2000koa uda beroa izateaz gain (10 graduen ingurukoa) oso arropa ona eraman zutelako. Lizarrara irailaren 8an ailegatu ziren.


Lizarrako Espeleologia Taldekoek, nola ez, bidaiaren balorazio «hagitz ona» egin dute. «Ingurune ikusgarria bisitatzeko aukera eman zigun, jarduera eta teknika berri bezain interesgarriak ikasi genituen, eta, aldaketa klimatikoaren azterketan laguntzeko, ekarpen tikiak egin genuen», adierazi du Azpilikueta. «Espedizio handi bat nola prestatzen zen gogorazteko ere balio izan digu Islandiakoak, azkena 1989an egin bainuen, Marokora».

Orain, taldeak ikus-entzunezkoa muntatu du, Islandian eginiko lana esplikatzeko. Espedizioan bi mila iruditik goiti egin zituzten, eta horietako hirurehunekin osatu dute proiektzioa, azalpenekin eta musikarekin batera. Pasa den larunbatean Lizarran eman zuten, estreinekoz. Eta ekainean Aiegin emanen dute. Eman nahi duen edonoren eskura dago proiektzioa, espeleologia taldekoek gogoratu dütenez.

Asier Azpilikueta

Barruraino

Glaziarren izotza urtzen delarik, ura barnera sartzen da eta zuloak sortzen ditu izotzean. Gero, izotz hori ugaldere moduan ateratzen da azpitik. Lizarrako espeleologoek Kviarjökull glaziar mihian zeuden zuloak zenbatu (33, orotara), mapan ongi kokatu, neurtu eta euren erraietaraino sartu behar izan zuten urtzearren nondik norakoak aztertzeke.



Glaziar mihia

Glaziar bat ugaldere baten gisara mendi edo toki garai batetik behera geldiro jaisten den izotz masa da. Elurra pisuaren ondorioz jaisten da; zenbat eta behegiago tenperatura garaia denez, behealdera doala urtu egiten da izotza, eta ugaldere sortu. Islandian lurraldearen zortzirena betetzen dute glaziarrek. Lizarrako taldeak glaziar handi baten Kviarjökull glaziar mihia aztertu zuten.

ARGAZKIAK • LIZARRAKO ESPELEOLOGIA TALDEA

Pitokeriak

Organoak. Gregorio Gonzalez On Goyoren ahots lodia entzuten zen lehendabizi. «Organos Janon», zioen serio demonio, NO-DOaren hasiera iragartzen ariko balitz bezala. Jarraian, organo musika zen entzungai, eta, gero, beste gizon baten ahotsa. Benetan mi-respenez beteta zirudien «¿Qué órgano!» ziolarik. Azkenik, On Goyo mintzatzen zen berriz, doinu instituzionala bazterrean utzita, gaizto: «Toque, toque...».

Radio Requeté de Navarran eta haren oinordeko Radio Pamplonan sekula egin den iragarkirik hoberena da. Francisco Franco Bahamonde hil aurretik hasi ziren aireratzten, eta entzuten nuen bakoitzean barre algartan egiten nuen eztanda, asmotsua zelako, eta argi erakusten zuelako —internazionalak iragartzen zuenez— aldaketak zetoze mundura.


Braslipak, braslipak, braslipak. Nolanahi ere, urte zenbait igaro ziren nire bizitza markatuko zuen irrati-iragarkia entzun nuen arte. Hura ere hankartearekin loturik zegoen, baina lakonikoagoa zen: «Alonso, Alonso, Alonso, o, lo que es lo mismo, calzoncillos, calzoncillos, calzoncillos». Iragarki hark erakarrita Alonso familiarteko dendara hurbildu, eta nire lehen braslipak jantzi nituen. Haien ondotik ehunka helduko ziren.

Braslipak, bai. Hori da azken hogeitau urteotan erabili izan ditudan galtzontziloen izendapen ofiziala. Hanka-zulo motzekoak, estu samarrak, hankartearen bere tokian mantentzen dutenak, pra-

JOXE LACALLE



On Goyo, irrati gizona.



MIKEL SAIZ

Club Natación Pamplona, Iruñeko elkarte.

ken azpian zimurrik osatzen ez dutenak —honek konpresa iragarkia dirudi—, familiarteko dendaren beste lelo ezagun batek dioen moduan, onak, politikak eta merkeak.

Azken 20 urteotan braslipak izan dira nire barne sentipenen euskarri. Ordea, emazteak, gupidagabe eta Javier Madrazok M-13rako erabili leloaren kalkoa eginez, hordagoa bota dio nire hankarteari —umore falokrataren aurkakoek barka diezazkidatela pitokeria errepikakorrok—. Lodiegi ei nago braslipak eramateko, hanka-zulo luzeagoko galtzontziloak erabiltzen hasi beharko omen nuke, eta argaltzen ez banaiz, ez dit braslipak erosiko, eta ez dit braslipak garbituko.

Larru gorriak. Hartara, nire oinarri ideologiko sendoenen defentsan —egun ez dut braslipen aldeko jarrera baino oinarri ideologiko sendoagorik— Club Natacióneko saunara joaten hasi naiz. Aurrekoan Carlos Perez Conde egokitu zitzaidan alboan, larru gorritan. Ahots lodiagatik ezagutu nuen, bai eta gurekin batera saunan zegoen beste lagun batek Conde deitu zuelako ere. Espero ez nituen gauza bik harritu nituten —lasai, ez dut bere hankartearen tamaina aipatuko: falokrata nabil, baina ez horrenbeste—. Batetik, gizaki arruntok bezala izerdia botatzen du. Bestetik, mikrofonoaren aitzinean ez bezala saunan elipsiak bazterrean utzi eta esaldi osoak egiteko gai da.

Conde aurrez aurre nuela baliatuz, argitu nahi izan nuen bera, Mikel Bujanda, Martinez de Zuñiga edo eta nor ote zen On Goyorekin batera Janon organoen iragarki ahiantzezina egiten zuen gizona. Gauzak horrela, iragarkia gogora ekartzen hasi nintzen. Jada solasean ari nintzen arte ez nintzen jabetu sauna batean larru gorritan ezezagun biri kontatuta iragarkiak eduki zitzakeen mezu inplizituek. Condek eta bere lagunak saunan denbora gehiegi zeramatela azaldu eta arrapaladan ihes egin zuten. Ni gorritu nintzen. Ordubetik geroago Monte Carlon gertaturikoa ahanzteko kuba-librea edaten ari nintzela, gorri segitzen nuen, eta iragarlea nor zen jakiteke.



panpilonia zirkus

Tintaren ajea

Ikasgelako izkina batean. Isilik. Bakarrik gehienetan. Txema Belaskok zatiketarik eta biderketarik baino nahiago zuen iratxoak marraztea paperean. Orain, iratxoak ez ezik, «ilargiak, eguzkiak, deabruak, jainkosak eta eskatzen didaten beste edozein irudi egiten dut ezezagunen larruan».

Txikitan, carioca errotulagailuz, plastidecor margoez eta pintzelez beteta zeukan etxea. Orain, «tinta eta orratza dira nire lan tresna nagusiak».

Osasun Etxean zorabiatu egiten zen erizainak besotik odola ateratzen zionean. Orain, «orratzarekin zitzada arinak baina etengabekoak eraginez margotzen ditut jendearen gerria, bularra, bizkarra eta besoak batez ere».

Jaiegunetan, kalkomaniak erosiz xahutzen zituen gurasoek emaniko sos guztiak. Orain, «6.000 eta 100.000 pezeta artean jasotzen dut, marrazkiaren tamaina eta zailtasunaren arabera».

Gaszte modernoa eta hiritarra da Tatuajes Boomerang dendako kidea. Nolanahi ere, «tatuajea oso aspaldiko tradizioa da. Tribu eta herrialde indigenetan dago bere jatorria: Polinesia, Peru, Zeelanda Berria, Egipto, Jamaika eta Japonia besteak beste».

Garai batean, oinarri erlijiosoak eta helburu sendagarriak zituzten larruaren gainean egindako margolanek. Orain, «arrazoi estetikoak dira nagusi: gorpuz-



MIKEL SAIZ

Txemak eskatzen dioten edozein irudi egiten du ezezagunen larruan.

tzaren apaingarri gisa, kolpeak eta zauriak disimulatzeko eta tatuaje zaharrak estaltzeko».

Txema Belaskok ez ditu modak maite, baina tatuatzearen aferak traza hori hartu du. Modak desagertzen dira, baina «tatuajeek betiko irauten dute gurekin. Gezurrak da desagertzen direla».

Iruñeko Alde Zaharreko San Agustin karrikan lan egiten duen artista honek ez ditu gustuko lege gehienak. Hala ere, «tatuajeak egiteko garaian bete beharreko baldintzak arautuko dituen lege bat as-

Pello Argiñarena

palditik ari gara eskatzen. Intrusismo gehiegi dago gure artean, eta kaltetu nagusiak gu gara».

Hor barna ikusita, grunge itxura erakusten du gure protagonistak. Orraztu gabeko ilea. Jantzkeria zabala. Bere lanean, berriz, oso estua eta zorrotza da. «Baldintza higieniko guztiak betetzen ditugu: bezeroaren azala sakonki garbitu ondoren desinfektaturiko tresnariarekin egiten dugu lan, betiere, tratamendu egokiak erabiliz bezeroaren azalari ez kalte egitearren».


Azkenik, margoak alde batera utzirik, Txema Belasko eta bere lankideak oso trebeak dira zintzilarioak paratzen. «Pe-arcing-ak belarri, bekain, ezpain, titimurtur, sudur eta zilborrean bakarrik jartzen dizkiogu jendeari. Klitorian eta zakilean, inoiz ez. Orratzarekin ebaki txikia egin behar da jarri aurretik».

Juan Jose Armendariz  BOSCOS FUNDAZIOKO IDAZKARI ETA BULTZATZAILEA

«Futbolak baino gehiago, giroak erakartzen du jendea»

● OSKAR MONTERO

44 urtez Iruñeko hemezortzi urtetik goitiko futbolari iruindarrak igandero bildu dituen lehiaketa da Boscos Saria. Salestarren ikastetxea izan zuen lehen egoitza, baina orain beste hainbat ditu, Boscosen itzalera bildu diren talde guztiak hartu ahal izateko. Aurten, 2.500 kirolari igaro dira lehiaketatik. Boscos Fundazioa sortu berri dute jarraipena ziurtatzeko.



BOSCOS SARIA SORTU ZENETIK antolatzaile lanetan ari da Juan Jose Armendariz iruindarra. Fundaziooko idazkari izendatu dute orain. Hastapenetan bezala, futbola jendearengana heltzeko tresna dela dio Armendarizek.

■ **Nondik dator Boscos Fundazioa sortzeko asmoa, eta zein helburu zituen?**

Idea 1997an sortu zen, Boscos Saria sendotzeko helburuarekin. Orain zuzendaritzan gauden kideok ziurtatu nahi dugu guk lan hau uzten dugunean beste batzuek jarraituko dutela, eta, beraz, Boscos Sariak jarraipena izanen duela. Fundazioa horretarako tresna ona izan daitekeela uste dugu. Hamar pertsona bildu ginen Fundazioaren inguruan eta Javier Orbaizeta izendatu genuen presidente. Duela lau urte sortu arren, orain eman dugu horren berri eta asmoa da Eguberrietarako edo kanpaina antolatzea, kideak geureganatzeko.

■ **Fundazioaren lana izanen al da baliabide ekonomikoak bilatzea ere?**

Bai. Orain arte Boscos Sarian parte hartzen zuten taldeen kuotarekin egin izan dugu aurrera, eta Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren laguntzarekin. Hasieran Superser etxeak eta haren

..... ●
«Boscos sariak hainbeste denbora irauteko sekretua jendearen erantzukizuna izan da, baita antolatzaileona eta parte hartzaileona ere»
 ●

bitartez Orbaizeta familiak emandako laguntza ez dugu ahaztu behar. Esparrua zabaltzea eta bestelako erakunde batzuen eta partikularren laguntza gureganatzen saiatzea da gure oraingo asmoa, erabiltzen ditugun azpiegituren egoera hobetzeko. Guk uste dugu Boscos Sariak aurrera jarraituko duela ziurtatzeko modu egokiena azpiegitura propioak edukitzea izanen litzatekeela, gure instalazioak partidak antolatu ahal izateko. Salestarren ikastetxea beste leku batera eramatea eztabaidatzen ari dira, eta guk egoitza berria leku bat izan nahiko genuke, Boscos Sariaren historia Salestarren ikastetxearen ibilbidearekin erabat lotuta dagoelako.

■ **Ibilbide luzea egin du Boscos Sariak; zein izan zen hasiera?**

Lagun talde baten ekimena izan zen. Igande goizetan zerbait antolatzea pentsatu genuen, elkarrekin egoteko eta ongi pasatzeko, eta horrela sortu zen Boscos Saria. Hasieran Salestarren zelaian izaten ziren partidak; orain Iruñeko eta inguruko beste hainbat ere erabiltzen ditugu. Gaur egungo asmoe-tako bat hasierako hori bera ere da, egungo gaz-

teentzat alternatiba bat izatea. Gure asmoa gazteak hezitzea da nolabait, futbolaren bidez elkarrekin bizitzen erakustea.

■ **Eta zein izan da hainbeste denbora irauteko sekretua?**

Jendearen erantzukizuna, zailtzarrik gabe, bai antolatzaileona, bai eta parte hartzen duten taldeena ere. Guk Boscos Saria bultzatu genuenean erabateko konpromisoa hartu genuen eta konpromiso horri eutsi diogu orain arte. Futbol taldeek gauza bera eginen dute lehiaketan parte hartzeko izena ematen dutenean.

■ **44 urtetan 12.000tik gora kirolari eta 200dik gora talde igaro dira Boscos Sariak; horrelako datuak futbolarekin bakarrik lor daitezkeela uste duzu?**

Orain bezala, Boscos Saria sortu zenean ere futbola zen kirol nagusia. Pilota ere bazegoen, eta mendizaletasuna, baina futbolarik zuen arrakasta handiena. Hala ere, lehiaketarekin hasi ginen jende gehiago bilduko zukeen beste kirolen bat egon izan balitz, berdin bultzatuko genukeen. Gure asmoa ahalik eta

118 talde eta 2.500 futbolari

DUELA ASTEBETE JOKATU ZEN BOSCOS KOPAKO FINALA, ETA HALAXE AMAITTI zen denboraldia. Lurrean aritzen diren artean Barañaingo Lagunak taldeak irabazi zuen, eta, pistan, berriz, Irrintzik. Bi horiek aurten Boscos sarian aritu diren 118taldeetako bi dira. Denera, 2.500 kirolarik parte hartu dute lehiaketan.

«Duela 44 urte zortzi talderekin hasi ginen», gogoratu du Juan Jose Armendarizek. Ongi, inork baino hobeto ezagutzen du berak Boscos saria, bultzatzaileetako bat izan baitzen, eta oraindik zuzendaritzan jarraitzen du. Hasierako taldeen artean zeuden Aldapa eta Anaitasuna, eta oraindik ere parte hartzen dute Boscosen.

Lehiaketaren xedea adiskidetasuna eta giro ona bultzatzea dela nabarmendu du Armendarizek, eta, asmo-horri eusteko, sariak banatzeko afaria prestatu dute gaurko, Iruñeko hotel batean. Han elkartuko dira kirolariak, antolatzaileak eta beste, denboraldia agurtzeko.

jende gehien biltzea zen, eta bada. Horregatik, adibidez, aldaketa asko egin daitezke Boscos Sarian, ahalik eta jende gehiagok parte har dezan.

■ **Zer dauka Boscos Sariak urtero hainbeste jende erakartzeko?**

Nik uste dut lehiaketan sortzen den giro onak erakartzen duela jendea. Lehiaketaren izaera informala atsegin du jende-

ak, eta, aldi berean, gauzak antolatzeko dagoen diziplina eta seriotasuna.

■ **Futbola baino gehiago, beraz, giroa da Boscos Sariaren ardatza?**

Futbola tresna bat besterik ez da, garrantzitsuena giroa da. Futbola erabiltzen dugu jendearengana heltzeko.

→ Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Legea aldatu

Ohi moduan, Nafarroako Aldizkari Ofizialak aurreratu digu albistea. Ez Diputazioan egiten duten agerkari hits horrek, baizik eta Cordovillakoak (nahiko triste hori ere, noizbehinkako Orozen txisteak kenduta). Euskararen inguruko albiste bati orrialde osoa eman diote; halakoetan hala egin ohi dute, gure hizkuntzaren promoziorako izaten ahal denetan, ordea, hutsaren hurrengo izan ohi da karaktere kopurua.

Egia esatera, testuan ez zegoen nobedade aipagarririk: UPNk Nafarroako Unibertsitate Publikoan (hemendik aurrera Unibertsitatea, ez baitakit Nafarroakoa eta Publikoa den ala ez) euskara oraindik gehiago murrizteko bere proposamena Parlamentura eramane du. Albistean, horrek ekarriko duena, azken urtean Unibertsitatean euskararen inguruan izandako eztabaida (ikusuntu bitxi batetik aztertuta), eta deus gutxi gehiago.

Halakoak, eta are gutxiago Cordovillako BON horretan, ez dira albisteak izaten, baizik eta agintean dagoen alderdiak egiten duenaren iragarpena. Sortuko diren erreakzioak aztertu, jendea prestatu, oposizioan omen dauden baina lagunak diren alderdiko kide horiek lotu... Kazetaritza nagusiaren zerbitzuan jarrita.

Hala izanen da, horrela abisatzen dutenean ez baitira txorakeriatan ibiltzen. Baina, eta hor dago koxka, Unibertsitatean euskararen araudia haien gustura moldatzeko Vasueneren Legea, orain arte ukiezina zen hori, aldatu behar da.

Azken hilabeteotako esperientziatik, negar egiteaz aparte, euskaldunok zerbait ikasiko genuela pentsatu nahiko nuke. UPNk bere egitasmo hori Parlamentura eramaten duenerako, gizarteak esan behar du behingoz haiekin bat datorrela. 40.000 ahots eta askoz gehiago.

Euskaldunok ezin dugu aukera hau alferrik galdu, berriro ere gaur-gaurtik eztabaida plazaratu behar dugu eta lanari ekin: tortillari buelta, UPNrekin ados, Vasueneren Legea alda dezagun bai, baina euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora zabaltzeko. Lortuko dugulakoan, esan dezagun lotsarik gabe: Bai Gurreari.

gure aukerak

MUSIKA

- **Berriozar:** Kizio taldeak Herria tabernan joko du gaur, 21:30ean.
- **Zangoza:** Gaur, pop-rock lehiaketaren barruan, Johnny Writer Band taldeak Espejo tabernan joko du 23:00etan, eta El Columpio Asesino taldeak Diagonal tabernan 00:00etan.
- **Tutera:** La Polla, Hechos contra el Decoro, Buitraker eta Fragile taldeek Elola kiroldegian joko dute bihar, 21:00etan.
- **Burlata:** Khamul eta Reber taldeen kontzertua izanen da bihar Euskal Herria peñan, 22:30etik aurrera.
- **Etxarri-Aranatz:** Igandean, Amama Luisa & Dixielangileak Brass Band taldeak kontzertua emanen du 19:00etan, plazan.
- **Agoitz:** Igandean, Oskorri & The Pub Ibiltariaren ikuskizuna Toki Eder frontoian, 20:30ean.
- **Iruñea:** Toto la Momposina kolonbiarra Zitudadelan izanen da asteartean, 20:00etan.
- **Burlata:** Makuru taldeak Black Rose tabernan joko du asteartean, 21:00etan.
- **Iruñea:** Petti kantariak Arrazoiak bere azken diskoa aurkeztuko du ostegunean, 20:30ean, Erraldoien Txokoa.
- **Iruñea:** Anorexia taldeak Alegria tabernan joko du ostegunean, 20:30ean.

BERTSOLARIAK

- **Casada:** Bihar, gaueko 22:00etatik aurrera, bertso afaria egiten dute Trinkele elkartean, Jon Maia eta Estitxu Arozena bertsolariekin.

ANTZERKIA

- **Leitza:** Gaur, Zirko Ttipia taldeak *Hirurak* lana aurkeztuko du 15:00etan, plazan.
- **Iruñea:** Tentazioa-Tricycle taldeak *Ez da hain erraza* helduentzako antzezlan taularatu du bihar, 22:30ean, Gaiarre antzokian.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Koldo Agarraberes margolariaren *Laberintoan* lana Arte Eskolako erakusketa aretoan izanen da ikusgai hilaren bukaera arte, astelehentik larunbatera, 18:30etik 20:30era.

- **Atarrabia:** Jose Mari Pastor Elorriagaren *Ibilaldia Atarrabiako paisaian barrena* olio eta akuarelen erakusketa izanen da ikusgai Jubilatuen Elkartearen ekainaren 9a arte, astelehentik larunbatera, 17:00etatik 21:00etara.

LEHIAKETAK


- **Iruñea:** Abian da sanferminetako barraken egitaraua iragartzeko kartelen lehiaketa. Kartelak Barrakak gure alternatiba leloa bildu behar du eta, halabeharrez, zati zuri bat izan behar du, gero kontzertuen berri emateko. Lanak ekainaren 12a baino lehen Iru-

ñizar euskaltegian entregatu behar dira, barraken batzordearen izenean.

BESTAK

- **Dorre:** Elortzibarko XII. Eguna ospatuko dute bihar: Noingo erraldoi eta buruhandiak herriko karriketan (11:00); Ardantzeta dantza taldea plazan (13:15); herri bazkaria frontoian (14:30); Nueva Alaskako taldearen kafe kontzertua frontoian (16:30); Marcel magoa frontoian (17:30); Egieder akordeoilariak herriko karriketatik (18:30), eta dantzaldia frontoian (20:30 eta 01:00).

• JOXE LACALLE



Aratxea erretzen

Haragia erretegiaren, aratxea sutan. Batzuetako behi eroen gaitza ez da existitzen, eta lasai asko jaten dituzte kalean erretako aratxe saihetsak. Nor akordatzen da haiekin? Iragan larunbatean besta antolatuta zuten Uhartean Nafarroako Amnistiaren Aldeko Batzordeak, «prozesu demokratiko baten alde». Ziurrenik, euskal presoak izanen zituzten gogoan. Baina nor akordatzen da haiekin? Duela pare bat aste hauteskundeak izan zituzten EAEko anaia-arrebek. Zenbaitek haragi guzia paratu zuten erretegiaren eta erre egin zitzaizen, aratxea ezin jateraino. Beste batzuek, aldiz, arinegi atera zuten aratxea erretegitik, egiteke zegoena eginda zegoela erranez, eta haginaren erdiak erori zitzaizkien, haragi gordinegia jateagatik. Haragia urte luzez erre duenak eraman zuen azkenean zatirik goxoena.